

## ALKATEAREN ERABAKIA

**ZENBAKIA:** 0461

**GAIA:** PAUSO BERRIAK HITZARMENA.2023

**ESPEDIENTEA:** 2023GDIR0002

**INTERESDUNA:** Fundacion Patronato Jose Arana

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 5.250,00 € euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du Fundacion Patronato Jose Arana-ren alde, 2023. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmeneta eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Gizarte zerbitzuak batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita,

Horiek horrela, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

### ERABAKI DUT

**LEHENENEGOA.-** Udalaren eta Fundacion Patronato Jose Aranaren artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

**BIGARRENA.-** JOSE ARANA PATRONATUKO FUNDAZIOAri 5.250,00 €-ko dirulaguntza ematea 2023.urtean Pauso Berriak programa aurrera eramateko, hain zuzen ere okupazional gisa adimen urria duen pertsona bat enpresan izatea aurreko urteetan bezala.

Programa horrek helburu nagusi bezala duela, alde batetik, adimen urria duten pertsonak bere inguruko enpresa eta erakundeetan sartzea, eta horrela, orain arte bazterketa egoeran zeuden pertsonen lanerako aukerak zabaltzea. Eta bestetik, enpresa sarearen eta, orokorrean, gizartearen sentibilizazioa eta kontzientziazioa adimen urriko pertsonen gaitasunaz lan inguru arruntetan aritzeko.

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenaren seigarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren % 60 ordaintzea, hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

**LAUGARRENA.-** 5.250,00 €-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 1 0300.471.231.90.01 2023 partidari egozte.

ALKATEA